

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K



Orratx! Antzerki Taldea ▶ ZOZOAK BELEARI IPURBELTZ

azaroak 5 larunbata 22:30etan eta azaroak 6 igandea 19:00tan >> GEZALA AUDITORIUMEAN




“Zozoak beleari ipurbeltz” du izenburu eta bost zati edo atalez osatua dago; lehenengo hirurak hiru gizonezkoren bakarriketa bana dira, laugarrena emakume batek aurrekoiez egiten duen laburpen gogoeta, eta azkenekoa berriz, bost emakumek gizonez-koei buruz izango duten solasaldia da.

Antzezlanaren Orratxek moldatu du handik eta hemendik bildu eta jositako antzezlan ttikiekin. Gehienak “El club de la comedia”ko autoreenak dira, egile batenak baino gehiagorenak alegia.

AGERRE TEATROA ▶ NESKA POLITAK ARTASORO ALAIAK

azaroak 25 ostirala 21:00etan >> GEZALA AUDITORIUMEAN



Adineko emakume zuri euskal herritar bat eta Afrikatik etorritako mutil gazte beltza bere musika rock-funk bandarekin aurkitzen dira merkatu batean, are gehiago, botatzear dagoen merkatu batean. Belaunaldiz, generoz, kulturaz eta arrazaz desberdinak diren bi pertsonaia dira. Baina osagarriak: Ixiar, atzera joandako garaietara begira dagoen barazki saltzailea da. Aldatzen doan mundu batean irauten duen emakumea da, kultura, ohiturak, tradizioak mantentzen dituen, eta istorioak kontatzen dituen. Ingurua aldatzen ari zaion mendi bat da.

Norden afrikarra da. Gaztetasuna, indarra, bizia islatzen duen etorkin gazte bat da, bere herriko musika eta musika berria saltzen duena. Suharra, irekia, ausarta da.


Aldaketak inoiz baino azkarrago gertatzen ari diren garaia bizitzea egokitu zaie biei. Kontrastea daukagu. Aldaketa. Eta aldaketa hori ikuspegi desberdinetatik kontatu nahi digutelako sortu da haien harremana.

Musika, erritmoa, emankizun frenetic-oa daukagu. Harmonizatzen dira kultura diferenteak, ahots desberdinak, ahots guztiak kolore anitzeko orkestra berean. Musika afrikarra, rocka eta bertsoak nahastuko dituzte. Hangoa eta hemengoa. Kontrasteak uztartuko.

MUSIKA

Zinea eta musikaren artean beti izan dira estuak harremanak. Alde bate-tik, pelikula guztiek dute soinu banda propioa. Nork ez ditu *La misión* edo *Good Morning Vietnam* bezalako pelikulen musikak hizpide izan. Pelikula asko dira soinu bandarengatik eza-gun egin direnak. Halere, bada musika eta zinearen artean harremana gehiago estutzen den kasua: pelikulen gaia musika bera izan ohi denean: *Ama-deus*, Mozarten bizia kontatzen duenean, Wendersen *Buena Vista Social Club* Kubako musikariei buruz ari denean edota *Cabaret* izenburuko mundu hori lantzen duenean kasu batzuk aipatze arren. Horietaz gain, ziklo honetarako aukeratu ditugunak ere, ildo hori jorratzen dute: istorioaren gaia musika bera da eta, logiko den moduan, soinu banda azpimarratzekoa dute.


Ziklo honetarako aukeratu diren lau pelikulak hemen ego-teko arrazoi nahiko izateak ez du esan nahi beste askok aukeratuak izateko meriturik ez zutenik. Aukeraketa egiteko irizpidean arestian aipatu irizpideez gain, hirugarren bat jarraitu dugu: garai bateko musika panoramaren isla izatea. Modu horretan 60,70,80 eta 90 hamarkadan izandako musika mugimenduen berri jasotzeko aukera izango dugula pentsatzen dugu. Hori zuek esango duzue.



QUADROPHENIA

Mod mugimenduko zaletuen artean kultuzko pelikula. Bere garaian ikono bat bilakatu zela ere, esan daiteke. 1965eko Londonen kokatzen da istorioa eta, moden eta rockerren arteko borrokak, lambrettak, gabardina luzeak, drogak eta garai hartako musika dira osagai albora ezinak. P.Danielsekin batera, *The Who* taldearen musika ere, protagonista paperean dagoela esan daiteke, hori gabe ulertezina bailitzateke gara hartako testuingurua.


1979, EB 120 min. Roddam, Frank.
P.Daniels, L.Ash, P.Davis, M.Wingett, Sting.



EL MURO-THE WALL

Aurreko pelikularen kasuan kultuzkoa zela esan badugu, gauza bera aipatu behar da honetan ere. Pink musika talde bateko abeslaria da. Jasotako heziketa zorrotzaren ondorioz trauma askorekin bizi da. Ihes-bidea, nola ez: droga eta musika. Istorioa baino pelikularen estetika eta muntaketa suertatzen da bitxia, egungo bideo klipen sorrera han inspiratu zela esaten duenik ere bada. Urteekin egunerokotasuna galdu ez duen pelikula izaten jarraitzen du.


1982, EB 95 min. Parker, Alan.
Bob Geldof, C.Hargreaves, J.Laureson, E.David., B.Hoskins.



WARP VISION

Musika elektronikoan ezinegon handiena erakutsi izan duen Ingalaterrako disko etxea da Warp Records. 32 klip ikus daitezke. Bertan azken 15 urtetako (1989-2004) abangoardiako musikan alde batera utzi ezin diren taldea eta artistak ageri dira. Antologia bitxi eta berezia, bere sailean prestigio handia lortu du beste gauza batzuren artean ondoko musikoei esker: Seefeel, The Designers Republic, Sabres of Paradise, Jamie Lidell, John Callaghan and Jimi Tenor.

2004, EEBB 120 min. Hainbat.
Musika bideoak.



LA ROSA

Mary Rose Foster rock abeslaria da. Suntsipen dinamikan murgildurik bizi da alkohola eta drogen gehiegikeriagatik. 70 eta 80. hamarkadako istorio ia egunerokoa izan zen bizimodu hau musikarien artean. Pelikula honetako pertsonaia fikziozkoa bada ere, Janis Joplin abeslari ospetsuaren bizimoduan oinarritzen omen da. Dena delakoa, garai haietan bizi zen girora hurbiltzeko askok aipatzen dute izenburu hau. 1980ko Oscarretarako lau izendapen jaso zituen.

1979, EEBB 125 min. Rydell, Mark.
B.Midler, A.Bates, F.Forrest, H.D.Stanton., B.Primus.

Lezoko zine agenda

AZAROA

NOVIEMBRE

2005



Gezala

AUDITORIUMA

800
zine ma



Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



DOGVILLE

Lerrootan zuzendari interesgarri honi buruz behin baino gehiagotan aritu izan gara. Honekin Lezora ekartzen dugun hirugarren filma da. Dagoeneko beraz, badakigu Lars von Trierrentzat istorioak adina garrantzi duela berau aurkezteko moduak. Pelikula honetan ere estetika berezia landu eta lortuko du, arrisku handiko esperimenturi arrakastaz aurre eginez. Edonola istorioak hartzen du pisua eta azkenean beste guztiaren aurretik geratuko da. Nicole Kidmanen zalea ez bazara, hemen duzu berarekin berradiskidetzeko parada... pelikularen amaiera apartekoa!

2003, Hainbat herrialde 🕒 143 min. 🏠 von Trier, Lars.
👤 Nicole Kidman, Jean-Marc Barr, Lauren Bacall, James Caan.



ARIZONA BABY

Coen anaien egiteko moduak ezagunak behar dute Lezon, *The Ladykillers* eta *Muerte entre las flores* ikusiak baititugu. Honako hau zuzendari bitxi hauen bigarren filmea izan zen. Genero guztietan ongi baino hobeki defendatzen den Nicholas Cage eta *El piano* pelikulan ezagutu genuen Holly Hunter miresgarriak boskiak bahitzea erabakitzen dute. Cage kartzelatik ateratakoa, Hunter kartzela zainarekin ezkondua eta haurrak bahitzen... komedia barregarria erabat!

1987, EEBB 🕒 94 min. 🏠 Cohen anaiak.
👤 N.Cage, H.Hunter, J.Goodman, F.McDormand.



PARIS, TEXAS

Denak edo ia guztiak bat datoz Win Wendersen pelikulen artean honako hau maisulantzatzat izendatzerakoan. H.Dean Stanton bigarren mailako paperak egiten maisu, (lehengo hilean ikusi genuen D.Lynchen pelikulan, eta hilabete honetan La Rosa pelikulan ere ikusi ahal izango dugu) hemen protagonista izateko adina gaitasun baduela erakusten digu. Ah, ohar bat, Ry Cooderren pelikulako musika eza-gutu edo entzun ez duenik ez da izango seguruenik. Cannesen hiru sari eta beste zinemalditan hainbatetan saritua estreinatutako urtean.

1984, Frantzia-Alemania 🕒 147 min. 🏠 Win Wenders.
👤 H.D.Stanton, N.Kinski, B. D.Stockwell, H.Carson.



EL IDIOTA

Dostoevskyren eleberrian oinarritutako istorioa kontatzen digu Kurosawa. Hasiera batean nahikoa berme zine zale bat aretora hurbilarazteko. Pelikulak Kameda izeneko pertsonaiaren istorioa kontatzen du. Gerrako krimenak egin izanagatik fusilatzen kondonatzen badute ere, azkenean libre aterako da. Gertaera horrek ordea, badu eraginik Kamedarengan: bere izaera aldatuko du eta besteek pertsona bitxitzat hartuko dute.

1951, Japonia 🕒 166 min. 🏠 Akira Kurosawa.
👤 Setsuko Hara, Masayuki Mori, Toshiro MifuneTakashi Shimura.


LARUNBATA • sábado



EL TAMBOR DE HOJALATA

Gunter Gass idazle alemaniarraren nobelan oinarrituta zuzendu zuen Schlöndorffek filme hau. Bigarren mundu gerran kokatzen da istorioa eta nanoa den pertsona baten ikuspuntutik bere istorioa, eta ondorioz garai horietako egoera sozialaren berri, aztertzen da. Cannesen 1979 urrezko maskorra irabazi zuen eta hurrengo urtean Oscarretan atzerriko hizkuntzan egindako filmarentzako Oscarra jaso zuen.


1979, Alemania, Frantzia, Polonia, Yugoslavia 🕒 142 min. 🏠 Schlöndorff, Volker.
👤 Adorf, Mario, Winkler, Angela, Bennent, David.



EL PERFUME IVONNE

Sensualitatea eta erotismoa ditu oinarri pelikula honen istorio malenkoniatsuak. Hiru dira protagonista nagusiak: bi gizon eta emakume bat. Suitzan kokatua, Victor Ivonne ezagutu zuen lekura joaten da berriro, honek harremana moztu izanaren arrazoiak aztertzeko. Unerik goxo eta polite-nak gogoratuko ditu bere egoerari azalpenik ezin aurkituz. Leconteren estilo zalea bazara berriro ere derrigorrezko hitzordu bat duzu.


1994, Frantzia 🕒 86 min. 🏠 Leconte, Patrice.
👤 Jean-Pierre Marielle, Hippolyte Girardo, Sandra Majani, Richard Bohringer.



PAYCHECK

Horretarako arrazoirik ez dugun arren, aitortu beharrean gaude zientzia fikzioaren generoa ez dugula gehiegi landu egitasmo honetan, nahiz eta hil honetan bertan genero hori lantzen duen beste pelikula bat programatu dugun. Zinemaren historian leku azpimarragarriak ez du lortuko baina balio beza larunbat gau entretenigarria pasa eta zientzia fikzioaren inguruan egiten ari dena gehiago ezagutzeko.


2003, EEBB 🕒 119 min. 🏠 John Woo.
👤 Uma Thurman, Ben Affleck, Aaron Eckhart, Colm Feore.



MEPHISTO

Brandauer (*Memorias de Africa*) zoragarri bat ardatz izanik, 1982an atzerriko hizkuntzan egindako filme hoberearen Oscarra jaso zuen. Cannesen ere, bi sari jaso zituen 1981ean estreinatu zenean. Jada Europako zineko klasiko bat da. Antzerki antzezle handinahi batek nazien faboreak eskuratzen saiatzen da bere karreran aurrera egiteko. Nazi zale baten alabarekin ezkontze-ra iritsiko da bere helburuak lortzeko.

1981, Alemania, Hungaria, Austria 🕒 144 min. 🏠 Szabo, Istvan.
👤 K.M.Brandauer, K.Janda, I.Bansagi, R.Hoppe.



ASTERIX, HAMABI PROBAK

Erromatarrek Galia osoa hartua dute, denok ezagutzen ditugun Asterix eta Obelixen herrixka ezik. Erromako inperioaren aurrean barregarri ez geratze arren Zesarrek zerbait egin behar du. Jainkoek berak ere, gainditu ezingo dituzten hamabi frogak antolatuko ditu eta herriko bi ordezkari bidaltzeko aginduko die. Bai, Asterix eta Obelix izango dira 'Galiar selekzio' bi jokalaria. Panoramixen 'dopinarekin' berriro ere Zesar barregarri geratuko da!

2003, Frantzia 84 min. Goscinny & Uderzo.
Marrazki bizidunak.



RUDI TXERRIA

Zozketa bat larria suertatu daiteke familia baten elkarbizitzarako. Rudi txerria zozketa horietako bateko saria da eta Gutzkow familiak atera du zenbaki sariduna. Irakaslea den amak eta langabezian dagoen aitak ez dute txerria jaso nahi, bai ordea bere hiru seme-alabek. Pentsa! Txerriak, hiru seme-alabak eta egun osoan etxean dagoen aitak zer eragin dezaketen!


1995, Alemania. 101 min. Peter Timm.
Ulrich Mühe, Iris Berben, Kristina Pauls.



GEZI URDINA

Haur behartsu baten historia da. Gabon gauean jostailurik jaso gabe geratzen da. Jostailuak bizidun bilakatuko dira eta beraien artean elkartu egingo dira haur honen atsekabea konpondu nahian. Jostailuek gau horretan abenturak eta sorpresak bizi araziko dizkiote haur horri. Italiar marrazki bizidun hauek Jani Rodariren ipuinean oinarrituta daude.

1996, It., Sui., Al., Lux. 93 min. Enzo d'Alò.
Marrazki bizidunak.



BOSTAK

Nork ez ditu bostak ezagutzen? Eta bere abenturak? Gaurkoan hiru abentura ikusteko aukera izango duzue: "Bostak elkarrekin ihesi", "Bostak elkarrekin berriz ere" eta "Bostak Billycock muinora doaz". Beti gaizkileen atzetik eta abentura zirraragarriak biziz kasu guztiak argitzeko gai izango dira hiru abentura hauetan.

1998, EB 100 min. Hainbat.
J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.

AZAROA - noviembre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 3	22:00	DOGVILLE
LARUNBATA 5	22:00	EL TAMBOR DE HOJALATA
IGANDEA 6	16:30	ASTERIX, HAMABI PROBAK
OSTEGUNA 10	22:00	ARIZONA BABY
LARUNBATA 12	22:00	EL PERFUME IVONNE
IGANDEA 13	16:30	RUDI TXERRIA
OSTEGUNA 17	22:00	PARIS, TEXAS
LARUNBATA 19	22:00	PAYCHECK
IGANDEA 20	16:30	GEZI URDINA
OSTEGUNA 24	22:00	EL IDIOTA
LARUNBATA 26	22:00	MEPHISTO
IGANDEA 27	16:30	BOSTAK

MUSIKA zikloa

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 8	22:00	QUADROPHENIA
ASTEARTEA 15	22:00	EL MURO-THE WALL
ASTEARTEA 22	22:00	WARP VISION
ASTEARTEA 29	22:00	LA ROSA

AUDITORIUMA

Gezala